


Basque Writing 1

Haur eta Gazte Literatura

Oparoa, erakargaria eta kalitatezkoa da azken urteetako



Basque Writing honetako gai nagusia Haur Literatura da. Mariasun Landa eta Xabier Etxaniz Erle ekarri ditugu orriotara. **Mariasun Landa** idazleak 33 liburu idatzi ditu eta hainbat literatur sari eskuratu ditu, etxean zein atzerrian. Bere lan ugariak itzuliak izan dira hizkuntza aaskotara.

Xabier Etxaniz kritikaria da eta Haur Literaturaren gainean aditua. Berak azaldu du, labur-labur, zein den euskarazko haur literaturaren egoera.

Galtzagorri Elkarteak helburu du haur eta gazte literatura bultzatzea eta hedatzea, eta horretan dihardu azken 18 urteetan.

Agurra

Lehen euskal liburua 1545 urtean argitaratu zen latinezko izenburuarekin, *Linguae Vasconum Primitiae*. Egileak, Beñat Etxeparek, ohartarazten zuen euskarak ez zuela behar bezalako lekua munduan, hizkuntza zahar-zaharra izan arren, idatzia ez izateagatik:

Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden. Bana

haien lengoajiaz bertze oro burlatzen. Zeren ezein eskripturan erideiten

ezpaitzen. Orai dute ikasiren nola gauza hona zen.

Idatzi, izenak izana baitu, idatzi. Izanak izena behar duelako, idatzi. Hori ikasi dugu gure lehen idazlearengandik.

LINGVAE VASCONVM PRIMITIAE per Dominum Beñatium Etxepare Rodricum Gasciensiensis rectoris.



Laura Mintegi

Euskal PENeko lewendakaria

IDAZLE KURDUK JASO DUTE EUSKAL GIZARTEAREN ELKARTASUNA

Azken orrian azaltzen da Adnan Hassanpour-en eta Hiwa Butimar-en alde 2008ko ekainean burutu zen kanpaina.

Bi kazetari kurduei heriotza-zigorra ezarri die Irango Auzitegi Nagusiak. 2007ko urtarrilean atxilotu zituzten eta uztailean ezarri



zieten zigorra. Ordudanik, PEN zentru askoren babesa jaso dute, eta Euskal PENeko *Honorary Member* dira biak.

Kanpaina zabal horren barruan hurbildu ziren Euskal Herrira Layla Hassanpour (Adnan-en arreba) eta Hadi Butimar (Hiwarren anaia).

MARIASUN LANDA, GEHIEN ITZULI IZAN DEN EUSKAL IDAZLEA

Haur munduaren ikuskera berdina da hemen eta antipodetan?

Ez dut uste. *Haur* eta *gazte* hitzak kultura eta klase sozialekin lotuta doazela iruditzen zait, desberdinak dira lehen mundukoak eta hirugarren mundukoak, alegia. Hala ere, badaude gai amankomunak kulturen arabera: haurtzaroren emozioak, beldurra, fantasiaren beharra, animalien erakargarritasuna, umorea eta abentura adibidez. Pentsa ezazu, kultura desberdinetan Mari Errauskinen 345 bertsiio jaso dira gaur arte...

Zer eskaini diezaioke literatur liburu batek gaur egungo haurrari?

Literatur esperientzia, liburuaren eta irakurlearen arteko topaketa intimo eta eraginkor horrek jarraitzen du izaten bizitzaren esperientzia interesgarrietako bat, nire iritziz. Baina, literatur esperientzia hori, ukituta uzten gaituen irakurketa grinatsu hori, ez da nahi dugun bestetan, irakurtzen dugun guztietan, gertatzen. Liburu bat batzuei bai eta besteek ez gustatzeko arrazoiak, askotarikoak eta diferentek dira bakoitzarentzat. Ez da guk eragin, iragarri edo programa dezakegun esperientzia. Gehienez ere, helduok ahaleginak egin ditzakegu zirkunstantzia egokiak sor daitezten haurren artean, hainbat baldintza batera bil daitezten: testu egoki bat, une aproposa, antzeko sentikortasuna...

Lan berria egiten duzunean, aurretik jakiteak zure liburu-seguruen-itzulia izango dela, nola eragiten du sormenean?

Narrazio berri bati ekiten diodanean nahikoa lan daukat horrek sortzen dizkidan zailtasun literarioez gainditzen, ez dut itzulpenaz pentsatzen edo, horretaz pentsatzen badut, gerorako uzten dut... Narrazioaren ahots narraitiboaz, eritimoaz, barnekoherentziaz edo elkarrizketen sinesgarritasunaz kezkatzen naiz.



HAUR LITERATURA, ESKOLAREN GATIBU

Amandre ipuinak idazten ziren lehen eta, egun, ipuin errealistak, haurrek hurbil duten errealitatea azaltzen dutenak. Zein iritzi duzu?



Nik beste modu batean aurkeztuko nuke gaurko egoera... Noraino eragiten dioten haur literaturako bitartekariak (irakasleak,

gurasoek, bibliotekariak, psikologoak...) haurrentzako egiten den literaturari. Har dezagun, adibidez, eskolako eragina.

Begira. Nire garaian, oso ondo bereizten genituen eskolako liburuak, alde batetik, eta, bestetik, gus-

tura irakurtzen genituen liburuak. Eskolakoak kanon literarioak agindutakoak ziren —*El Lazarillo*, *La Celestina*, *On Quixote*...—; eta guk irakurtzen genituenak, berriz, *Tom Swayer*, *Alizia lurralde miresgarrian*, *Peter Pan*, komikiak... nolabaiteko transgresio sententzioaz irakurriak, gainera. 1975 urte inguru horretan, irakasle aurrerakoiak hasi ziren erreibindikatzen haur literatura eskolan sartzea, eta hori sekulako aldaketa izan zen. Orain esaten dugu eskolatik kanpo ez dela irakurtzen, eta agian hori gertatu da, neurri batean, literaturak galdu duelako transgresio puntu hori. Literatura irudimenezko, fresko, arin hori eskolan irakurtzen dute orain. Eta, gaur egun, susmoa dago haur literatura ez ote den gehiegi eskolarizatu, eta atera beharko litzatekeela eskola-gaietatik bereizteko.

Eta nola atera daiteke literatura eskolatik?

Espazio berriak lortu behar dira, plazerezko irakurketarako lekuak, demagun eskolan bertan. Irakurketa librea proposatuko nuke, haurrak ohitu daitezten liburutegira joaten, nahi dutena irakurtzera. Hori da eskolatik ateratzea. Baina, une honetan, ikus-entzunezkoaren garaian... Denok dakigu liburu irakurtzea pelikula bat ikustea baino zailagoa dela. Barne lana eskatzen du, isiltasuna, sosegua, gaur egun gizarteak nekez lantzen duena.



IBBY-ek (International Board on Books for Young People) jaso du Landaren lana

Mariasun Landak 33 liburu idatzi ditu eta, denetara, 20 bat hizkuntzatar itzuli dira. Bi liburu sartu dira IBBYren Ohorezko Zerrendan, *Iholdi* (1992) eta *Krokodilo bat ohe azpian* (2002), eta *Elefante txori-bibotza* ipuina 2001eko Municheko Nazioarteko Haur eta Gazte Liburutegiaren *White Raven* zerrendan dago.





Txikia eta aberatsa

Euskararen egoera hobetzearen eginiko esfortzuen artean nabarrena da haurren esparruan eginiko lana. Irakaskuntzan, komunikabideetan (telebistan edo euskarazko egunkarian, esaterako) eta, oro har, esparru guztietan, indarra egin da hurrek euskaraz bizitzeko aukera izan dezaten. Testuinguru honetan ulertu behar da euskarazko haur eta gazte literaturak izaniko eboluzioa. Areago, testuinguru horretan ulertu behar eus-

kal literaturak – haur nahiz helduentzat – gure gizartearen duen garrantzia. Bestalde, euskarazko komunitateak literaturan aurkitu du bere izaera garatzeko aukera paregabea.



Haur literatura fenomeno nahiko berria da munduan, are berriago euskaraz. Duela bi mende idatzi ziren lehen liburuak haurrentzat, baina duela berrogei urte arte ez dugu helburu estetiko primatzan zuen libururik.

Gure txikitasunean saiatu gara haurren interesei erantzuten dizkieten testuak eskaintzen. Bernardo Atxagak, Mariasun Landak edo Anjel Lertxundik ireki zuten atea fantasia eta irudimena erabiliz, baina baita irakurlearengan gogoeta sortarazteko asmoz. 90eko hamarkadan errealismo kritikoa nagusitu da eta, gizartea hobetzearen, inmigrazioa, ezberdina izateko eskubidea, feminismoa, kultur aniztasuna... ukitzen zituzten lanak agertu dira. Patxi Zubizarretaren lana dugu horren adibide argia, Afrika, kultura musulmana eta Euskal Herria batzen dituen obra oparoa.

Une honetan, euskaraz, tematika eta estilo aldetik aberastasun handia dago. Hala ere, haur literaturak eskolarekiko dependentzia handia du, produkzioaren ehuneko handia eskolak kontsumitzen baitu. Horrek sortaraz dezakeen autozentsura merkatuaren txikitasunak malgutzen du, eta askatasun handia ematen dio idazleari eta argitaratzaileari.

Edozein modutan, euskal haur literaturak duen erronka nagusia da irakurle horiek irakurle izaten jarraitzea heldutasunera iristean. Baina hori ez da bakarrik literatura txikien gaitza!

Euskal Haur Literatura hizkuntza haue- tan irakur daiteke:

- Albaniera
- Alemana
- Arabiera
- Aragoera
- Aranera
- Armeriera
- Asturiera
- Braile
- Bretoiera
- Daniera
- Errumaniera
- Esloveniera
- Esperantoa
- Finlandiera
- Frantsesa
- Frisiera
- Galesera
- Galiziera
- Gaztelera
- Grekera
- Hebraiera
- Hindi
- Ingelesa
- Italiara
- Japoniera
- Katalana
- Kroaziera
- Niderlandera
- Norvegiera
- Poloniera
- Portugesa
- Suediera
- Turkiera
- Txekiera
- Ukraniera



Galtzagorri Elkarte, sostengu beharrezkoa

Galtzagorri Elkarte 1990ean sortu zen haur eta gazte irakurzaletasuna bultzatzeko eta euskarazko haur eta gazte literatura sustatu eta ezagutarazteko. Idazleek eta ilustratzaileek, ipuin kontalariek, irakasleek, bibliotekariak, itzultzaileak eta liburu saltzaileak hartzen dute parte elkartean.

Galtzagorri Elkartearen ordezkaria, gainera, OEPLI eta IBBY erakundeetan da.

Urtero antolatzen ditu areto literarioak, irakurketa mintegiak, ikastaro eta topaketak eta irakurzaletasuna sustatzeko kanpainak, horien artean Liburu Gaztea, Liburuaren Altxorra, Liburu Ibiltariak eta Idazle Gaztea.

Urtean bitan argitaratzen du **Behinola**, Haur eta Gazte Literaturari eskainitako euskarazko aldizkari bakarra, eta Euskarazko Haur eta Gazte Literaturako Idazleen Katalogoa ere plazaratu du.

ADNAN HASSANPOUR ETA HIWA BUTIMAR-EN ALDE KANPAINA ZABALA EGIN DA



Musika kurdua lagun, dantza egin zuten euskaldunek Layla eta Hadirekin.

Layla Hassanpour eta Hadi Butimar-ekin batera, Rahim Kaderi itzultzailea egon zen, Zinar Ala eta Asier Serrano musikariak, Miren Agur Meabe, Asel Luzarraga eta Fernando Morillo idazleak, Fredi Paya eta Arkaitz Estiballes bertsolariak eta Nazand Begikhaniren poemak. Xedea, elkartasuna.



Gernikan, Picassoren margoa jasotzen duen hormaren aurrean.

2008ko ekainaren 15tik 20ra Euskal Herrian egon ziren Layla Hassanpour eta Hadi Butimar, Adnan-en arreba eta Hiwa-ren anaia hurrenez hurren.

Testigantza eman zuten Gasteizko eta Iruñeako Parlamentuetan, Euskal PEN Idazluma jaso zuten eta parte hartu zuten kultur ekitaldi batean.



Adnan eta Hiwaren senideek Euskal PEN Idazluma jaso zuten ekitaldian.

Beste ekitaldi batzuetan ere hartu zuten parte: Amnesty International-eko kideekin batera azaldu zuten kurduen egoera Iran-en; Gernikako Arbola eta Juntaetxe historikoak bisitatu zituzten eta, azkenik, Mundakako alkateak udaletxean hartu zituen, Urdabai-ko biosferatik itsas-txangoa egin aurretik.

EUSKAL PARLAMENTUETAN TESTIGANTZA EMAN ZUTEN

Rahim Kaderi, itzultzaile eta intelektual kurdua, Madrilen bizi da orain 23 urte.



Hadi Butimar, Hiwa-ren anaia, Ingalaterran bizi da bost urtetik hona.

Layla Hassanpour, Adnan-en arreba, Irak-en bizi izan da Euskal Herrira etorri arte. Egun, Europako herrialde batean eskatu du babesa.

Hassanpour eta Butimar-ek beren testigantza azaldu zuten Euskal Autonomi Elkarteoko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan, 2008ko uztailearen 17an eta 18an hurrenez hurren.

BASQUE PEN

pen@euskalpen.org
www.euskalpen.org